

Suhiltzaileen lana, sua itzaltzea baino askoz gehiago. ikasbil.

2019-10-31

Maiatzaren 4a suhiltzaileen nazioarteko eguna dela **aitzakia** hartuta, beraien ogibidea gertutik ezagutzeko Gasteizko Suhiltzaileen Parkera joan gara. Egiten dituzten irteera asko ez dira suteekin lotuta egoten, baizik eta asiar liztorrekin, alarmekin edo etxebizitzak irekitzearekin.

Suhiltzaileek suteak itzaltzen dituzte, eta horixe da hitzak berak esaten duena: su+hiltzaile. Kanean galdetzen badugu zein den suhiltzaile baten lana, ziur gehienek mahuka eskuan eta ura botatzen **irudikatzen** dituztela. Hala ere, beraien lan-esparrua askoz ere zabalagoa da eta, jakin-minak bultzatuta, Gasteizko Suhiltzaileen Parkera hurbildu gara. Bertan, Aitor Agirre suhiltzailearekin hitz egin dugu: “Jada hogeitaz hamar urte igaro dira 1999an lan honetan hasi nintzenetik”. Hogeita lau orduko txandatik **ateratzear** dela harrapatu dugu, larrialdietako telefonoa badaezpada eskuartean duela.



Aitor Agirre Gasteizko Suhiltzaileen Parkean.



Aurtengoan Gasteizko suhiltzaileek 175. urteurrena ospatu dute. Garai bateko kamioi zaharrak gordeta dituzte.

Bete beharrekoak

Agirrek esan digu ez dagoela suhiltzaile izateko ikasketa **zehatzik**, ez lanbide-heziketarik: “Horren inguruan zerbait egitea pentsatzen ari dira, baina oraingoz ez dute ezer erabaki”. Gaur egun, azterketa idatzia gainditu behar dute, baita proba fisikoak ere: “Legeak, geografia, suteak, istripuak... hainbat gai ikasi behar ditugu. Ni sartu nintzenean, proba fisikoak oso gogorrak ziren. Orain aldatu egin dira, eta ez omen dira lehen bezain gogorrak. Gidatzeko probak ere egiten dira eta ogibideren bat jakitea ere eskatzen dute: iturgintza, erreskate-lanak, **erlezaintza**...”.

Urteekin baldintzak moldatzen joan dira, baita egiten duten lana bera ere. Agirre suhiltzaile **denetik**, aldaketa horiek gertu-gertutik bizi izan ditu.

Hainbat lan

Irteera-moten ingurukoa izan da aldaketarik garrantzitsuena: sute-kopurua azken urteetan **egonkorra** da, baina laguntza teknikoak eta asiar liztorrarekin zerikusia duten irteerak gero eta gehiago dira. “Saneamendu eta **estolderiako** sareak; ura ateratzeko laguntza; liztorrak eta erleak; alarmak; instalazio elektrikoak eta gas-instalazioak; etxebizitzak irekitzea; errepidea garbitzea; alturako arriskuak... **Hori guztia** biltzen du laguntza teknikoak”, esan du Agirrek. Gasteizko suhiltzaileen datuen **arabera**, 2018an, 3.517 eskuhartze egin dituzte guztira. Horien artean, % 57,79 laguntza teknikoak izan dira.

Laguntza teknikoaren ondoren, suteak eta **leherketak** izan dituzte gehien: % 20,77, hain zuzen ere. “Zakarrontziak, zabortegiak, baserriak, ikuskizun publikoak, garajeak, aparkalekuak, industrialdeak, merkatarien lokalak, mendiak, ibilgailuak, etxebizitzak... Hainbat lekuk hartu dute su eta horiek itzaltzera joan behar izan dugu”, kontatu du.

Salbamenduak eta erreskateak ere lanaren parte dira: 2018. urtean % 15,54 izan dira, zehazki esanda. “Animaliak, igogailuetan edo etxebizitzetan harrapatuak, auto-istripuak dituzten pertsonak, **hilotzen** erreskatea uretan edo lurrian... Egoera konplikatuak izaten dira, baina horiek ere **egokitzen** zaizkigu”, azaldu du Agirrek.



Suhiltzaileek hogeita lau orduko lan-txandak egiten dituzte.



Suhiltzaileak kamioitik tresneria ateratzen.

Azkenik, prebentzio-lanak ere egiten dituzte: festetan, ikuskizunetan eta su artifizialak **daudenetan**; ikuskapenak, simulazioak, formakuntzak... “Horrek gure lanaren zati txiki bat betetzen du, % 5,84; eta merkantzia arriskutsuekin, berriz, oso gutxitan aritzea tokatzen zaigu. Industriagune edo biltegi batean ihesaldi edo isurketaren bat gertatzen denean, deitu egiten digute. Iazko gure lanaren % 0,06 izan dira horrelakoak. Oso gutxi, **beraz**”.

Semaforoa eta txirrina

Hainbeste lan-mota desberdin izanda, suhiltzaileei nolako irteera egin behar duten **jakinarazteko**, kode berezi bat erabiltzen dute. “Bost kolorez osatutako semaforo bat dugu eta, txirrinaren iraupenaren arabera, badakigu zer gertatu den eta larritasuna **zenbatekoa** den”, azaldu du suhiltzaileak. Argi gorria pizten da sutea dagoenean eta argi berdea, berriz, altuerako irteera bat egin behar dutenean: erreskateak, esaterako. “Laranja jakite txikia izan dela esan nahi du; adibidez, zakarrontzi bat erretzen denean. Argi urdinak mendiko edo basoko suteak, eta argi zuriak irteera teknikoak: uholdeak, liztorrak, igogailu bat gelditu dela...”, adierazi du Agirrek.

Koloreek konbinatuta ere badute esanahia: argi zuriak eta laranja trafik-istripua esan nahi dute, edo argi berdeak gorriarekin nahastuta, etxe edo pisu batean sutea izan dela. “Argiekin batera jotzen du txirrinak ere. Zarata zenbat eta luzeagoa izan, **orduan** eta larritasun handiagoa izango du irteerak”.

Eta zuk bazenekien hainbeste gauza egiten zituztela? **Zerk** harritu zaitu gehien? Inoiz deitu behar izan diezu?